

**XXXII. ERRENERIA HIRIA IPUIN LEHIAKETA
2012**

**JOXAN ARBELAIZ SARIA
ERRENERIAKO IPUIN ONENARI**

HARITIK ZINTZILIK

EGILEA, Aitor Albistu

Haritik zintzilik nagoenetik, haizeak egin izan dit bisita. Bere indarra eskaini dit hariari eragiteko, balantza mugimenduaren eraginez ezezagunaren ertzera iristen ahalegintzeko. Bisutsetik haizetera eta haizetetik zurrumbilora, nire patua mugiarazteko aukera izan dut, baina ez dut hariaren zurruntasuna aproban jarri nahi izan, halabeharra tenkatuz, erorketa ziur baten preludioa bailitzan.

Haritik zintzilik nagoenetik, denborak ere egin izan dit bisita. Bere betiereko pazientzia eskaini dit, eternitateak haria gupidagabe higa dezan, nire lotura deuseztuz eta bizi hoben baten esperantza albainduz. Denborak arazoa bere baitan dakar ordea, ez baitakit nire iraungitze-data hariarena baino lehen helduko ote den; eta, beranduago helduta ere, ez baitakit zenbat denborako esperantzak albainduko nauen.

Haritik zintzilik nagoenetik, euriak ere egin izan dit bisita. Bere ahalmena nire zerbitzura jarri du; zaparrada jarraiak, nire azpian datzan hustasuna betetzen ahalegintzeko; euri-erauntsiak, bustitzearen bustitzez hariaren irmotasuna ahultzeko; eta uholdeak, euren indarrez haria erraietatik erauzteko. Zirimiriziztrinenak ere hotzeria eragiten dit tamalez, eta ez dut aspaldian ezerezero igeri egin; ez naiz amets antzuetan ito, beraz.

Haritik zintzilik nagoenetik, zorrotzaileak ere egin izan dit bisita. Zorrotz joka dezadan gomendatu dit, lotzen nauen haria moztu eta sufrikario iraunkortzat duena eraisteko. Erabilera anitzeko suitzar-labanik ez daukat baina; eta, eduki banu ere, kartera ahaztuta zintzilikatu nintzen, zorrotzaileari balizko labana zorroztearen trukean ordaindu beharreko txanpon ziurren konpainiarik gabe. Etorritako bidetik itzultzen da beraz, txistu melodiaren ibilera pausatuan.

Haritik zintzilik nagoenetik, goseak ere egin izan dit bisita. Bere ikasgai guztiak neure baitaratu ditut eta, egia esan, jarraitzaile sutsu bat izatera iritsi nintzen bolada batean. Fisikoki askoz hobeto sentitzen nintzen, gerria lasaiago, antsietatea meharrago. Guztiak dauka bere limitea, ordea. Ahuleziaren muga gainditzean estetikaren printzipioak kolokan daudenez, jatearen plazerera itzuli

nintzen, gerrikoaren estuasuna hobestera, hariaren irmotasuna nire haragian sentitzeraino. Lodi, baina zintzilik, hariari lotuta, gerriaren lasaitasunak lekarkeen erorketaren beldurrik gabe.

Haritik zintzilik nagoenetik, logaleak ere egin izan dit bisita. Ametsen mundurako atea zabaldu nahi izan dit, errealitate lotesletik urruntzeko modu bakarra bailitzan. Nahi dudana izateko aukera eskaini izan dit, naizena nahiko nukeenetik erabat apartean bailegoen. Oso oker dago baina. Naizena naiz, ez agian hala izatea nahi dudalako, hala izatea egokitu zidalako baizik. Hala egin ninduten eta halakoa naiz. Eta konforme nago. Ez dut ameskeria hutsez nire burua traditu nahi, haritik zintzilik egoteak esna eta erne egotea exijitzen baitu, egon nahiko nukeenaren aurretik nagoenaren esentzia hautatzeraino.

Haritik zintzilik nagoenetik, fedeak ere egin izan dit bisita. Bere errezuen mezuak ezagutarazi dizkit, bere dogma ezkutuenen zehaztasunak azaldu, bere balore hilezkorren balioa adierazi. Nire ikuspegiaren berri eman izan diot beti, baina iritzi desberdinekiko betiko jarrera hertsian darrai. Ez du nire egoera ulertzen, edo ez du ulertu nahi. Kontrakoa usteko duen arren, hemen, bera ere hari batetik zintzilik dago.

Haritik zintzilik nagoenetik, angustiak ere egin izan dit bisita. Bere izateak nire barrunbea aztoratu nahi zan du, nire izatea krudelki itotzeraino. Bere negatibotasuna nire ariman txertatzen ahalegindu da, bere suntsitzeko joera nire jarreran ezartzen, bere beldurrak nire egiten, ni bera bihur nendin desiratzeraino. Maiz esan diot, berak berean dirauen arren, ez duela berak haria eragiten, haria dela berari eragiten diona. Eta ohartzen da, esaten diodana aztertzerakoan, bere burua bere buruak hartzen duela; angustiari angustia hariak bakarrik eragin diezaiokela, alegia.

Haritik zintzilik nagoenetik, askatasunak ere egin izan dit bisita. Pairatzen dudan esklabutzari buruzko mitin amaitezinak entzun behar izan dizkiot, aditzeko asmorik sekula izan ez dudan arren. Libertatea, aukeratzeko aukera,

norberaren borondatea errespetatua izatearen beharra, jarrera errepresiboen aurkako jarrera derrigortua, eta bla bla bla. Onartu izan diot haritik zintzilik egotea askatasun ezarekin lotzen dela, askatasunak lotuko bagintu hari beharrik ez baigenuke zintzilik egoteko; eta askatasuna zintzilik balego, hariak lotuko baiginduke. Nire argudioak berak, bere izatearen erlatibotasuna agerian uzten duela esan izan diot. Askatasunak hautu bat izan behar baitu, ez obligazio hutsa. Berak ez du hala ulertzen, eta bere izenaren izenean, hariaren eta zintzilik egotearen aurkako izugarrikeriak bota izan ditu, eta nigandik urrundu, bere aurreko oihu indartsuak xuxurla huts bilakatzeraino.

Nola ez naiz aske izango ba, haritik zintzilik jarraitzea nik hobesten badut? Egia da nik ez nuela haritik zintzilik egoteko erabakia hartu. Bai, ordea, hala jarraitzekoa. Horregatik sentitzen naiz aske. Horregatik sentitzen naiz lotuta. Horregatik da askatasuna erlatiboa.

Ezarian-ezarian, erabateko lasaitasunean bizi denaren antzean, zintzilik naukan haria bi eskuekin heldu eta galdetu diot: norbait gehiago etorriko al zaigu bisitan?